

Txillardegi

## Comunió-en itzal luzea

K

ondaira ez da osoki errepikatzen. Eta hau kontutan ez hartzeak dogmatismo-ra eta hamaika zurrunkeriatar eraman gaitzake. Baina, hein batez errepikatu egiten delako, Kondaira argi emaile gerta daiteke geroari buruz.

EAJ-PNVren historia luzean badugu zer ikasirik, artikulua honetan azaltzen saiatuko naizenez. 1952 urtean, Bilbon ikasle nengoe-larik, oso maiz joaten nintzen Diputazioaren Liburutegira, izen bereko kalean. Frankismo betean geunden. Horrela ezagutu nuen nik, adibidez, Hermilio Olorizen *Defensa y Fundamento de los Fueros* liburua (Iruña, 1880). Neronek ireki behar izan nituen neure labanaz jadanik horizatzen hasiak ziren orrialde haiek. 1952 urte hartan irakurlerik batere ez baitzitzaion hurbildu, antza. Eta bide beretik irakurri nuen 1936ko gerra aurrean PNVk argitaratzen zuen *Euzkadi* egunkaria. Orduko xehetasun batzuk ez zaizkit batere ahaztu. Eta buruz kontatu beharko ditut.

1913az geroztik Engrazio Arantzadi *Kizkitzak* zuzentzen zuen *Euzkadi*. Eta 1931n PNVak espainiar Errepublikan nola hartu zuen jakin nahi nuen. Aski da Konstituzio hura irakurtzea, aurrera pauso galanta izan zela jabetzeko (1931-XII-9). Hasteko, Espainiaren definizioa bera zen adierazgarria: “*Una república de trabajadores de todas clases, que se organiza en régimen de libertad y de justicia*”. Ez baitzen batere Sotaren gustukoa!

Gizasemearen eta emakumearen eskubide berdintasuna aldarrikatu zuen bestetik. Eta askatasun klasikoak oro bermatu: pertsonarena, postaren bortxaezintasuna, pentsaeraren zein adierazpenarena, elkartzeko eta sindikatzeo askatasuna, atxiloketetan *habeas corpus* delakoa baliatu ahal izatea. Eta abar luze bat.

Kultura puntuzko asko hautatu ziren diputatu eta Gorteetara azaldu: Unamuno, Marañón, Ortega y Gasset, Pérez de Ayala. Eta honek nolabait aire berriak erantsi zizkion espainiar politikari. Eskualdeen autonomia aurrera eramatera deliberaturik –Konstituzioa onartu baino are lehenago ere, oztupoak agertu arren–, berehala ekin zitzaien Kataluniaren eta Euskal Herriaren prozesuei. Betiko beldurrak eraginik,



RUBEN PLAZA

eskualdeen arteko elkarketak debekatu ziren eta “federalismo” hitza ezabatu zen.

Aldaketa gaitza zen. Hots, zein izan zen *Kizkitzak*aren aldizkariaren jarrera? Oso ongi oroitzen naiz: “Jainkoa hitza izkribuan agertzen ez zelako”, PNVk ezin onar zezakeela Konstituzio hura. “Gibraltar vaticanista” eta antzeko laidoak orduan mamitu ziren. 1931 urtean horixe zen kezka nagusia. Eta jarrera karka horren sustatzaileak bi jaun haiek izan ziren: finantzaren aldetik, Ramón de la Sota industria gizon famatua, eta *Kizkitza* integrista amorratua ideologiarenetik.

Hitz batez, Comunió Nacionalista-koek agintzen zuten Alderdian 1931n, baina arazoa urrutitik zetorren. 1917an Luis Arana-Goiri PNVtik botaz geroztik, bi bloke zeuden Alderdian. Abertzale erradikala zen bata, Aberri ize-naz gero ezagutua, espainiar politikan parte-hartzearen kontrakoa. Funtsean Luis Arana Goiri eta Eli Gallastegiren inguruan mamitua.

Eta errejionalista “moderatu” bestea, Sota eta *Kizkitza* buru, espainiar politikan sartzearen aldekoa, autonomista, Espainiaren barruan “eroso” sentitzearen aldekoa.

Bien arteko desberdintasunak nabarmenak ziren. *Kizkitzak*, adibidez, behin eta berriz gaitzetsi zituen irlandar separatistak; Gallastegik, artean, txalotzen zituelarik.

Independentziarik gabe Euskal Herriak ez zuela irtenbiderik izango aldarrikatzen zuen Aberrik. Comuniónek, aldiz, independentzia desiragarria zela, hori bai; baina ez nahi-taezkoa gure herria aurrera ateratzeko.

Hots, gaur arte iraun duen zatiketa zahar horrek, indar berria hartu du azkeneko asteotan, Ezker Abertzale ofizialak berak, ustekabean, “autonomia” hitza berreskuratu nahi izan duenean. Asaldu gaitza sortu da abertzaleon artean. Sotismo zaharraren mezua guganaino iritsi da; eta ez PNVren barruan bakarrik.

PNVren etsai nagusia 1978az geroztik ETA baldin bada, eta ez inperialismo Franco-espainola, atzera pausoa gaitza dela ezkutatzetik ez dago. Eta lerro hauetan abertzale asko eta askoren inarrosketa auzaltzen ari naizela iruditzen zait. Niri dagokidanez behintzat, Comunió Nacionalistari ez. ■

Aberri eta Comunió. Gaur arte  
iraun duen zatiketa zahar horrek,  
indar berria hartu du azkeneko  
asteotan Ezker Abertzale ofizialak  
berak, ustekabean, ‘autonomia’ hitza  
berreskuratu nahi izan duenean